



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure ideia aurrera eramaterako garaian, behar-beharrezkoak ditugun baliabide batzuk izan behar ditugu kontuan. Hauek balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetuko diotenak gure enpresari. Honen harira lau baliabide bereiz ditzazkegu: Baliabide fisikoak, Baliabide intelektualak, Giza-baliabideak eta Finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei erreparatuz, ezinbestekoa da intsektuak ekoizteko gune bat edukitzea, ondoren ekoizpena bideratuko ditugunak. Beraz, ekoizteko eta landatzeko gune handi, higieniko eta eroso bat behar-beharrezkoa dugu. Zorionez, Urretxuko industrialdean dagoen fabrika batean txertatuko dugu gure enpresa, non bitxoen ekoizpena eta produkzioa aurrera eramango ditugun.

Beste alde batetik, Baliabide intelektual eta Giza-baliabideak ditugu, hemen, gure proiektuaren parte garen pertsona guztiek enpresarekiko duten ekarpena azalduko dugu. Lehenik eta behin, Aisling-ek duen finantzatarako erreztasun eta trebezia aipatu behar da. Gainera, ez dugu web orria sortzerako garaian inolako beldurrik, informatikako ikastaro batzuk egina baita Nahia. Nahia Bergara dugu, bere imaginazio eta originaltasunak egiten du bereizgarri, sare sozialetarako duen erreztasunarekin batera. Hori gutxi balitz, oso pertsona irekia da, eta edozein pertsonarekin erlazionatzeko erreztasun aparta erakusten du, hau bere familiak urteetan izan duen tabernatik ikasia izanik. Bestalde, betidanik marketing-a gustatu zaion pertsona bat denez, abilezia ugari garatuak ditu jada esparru honetan. Azkenik, Nahia Alustiza dugu. Bere ama biologa izatearen ondorio da txikitatik erakutsi duen zomorrokiko zaletasun hori. Horrez gain, pertsona arduratsua da eta higieneari berebiziko garrantzia ematen dion horietakoa.

Amaitzeko, finantza-baliabideei egingo diegu erreferentzia, hauetan guk gure enpresa hasteko jarri beharreko diru kopurua zehaztuko dugu. Enpresako partaide bakoitzak 10.000€ jarriko ditugu gure proiektua abian jartzeko, hau da, denera 30.000€. Bestalde, METXA enpresak, Espainian kokatuta dagoen ekintzaileentzako lehen proiektu azeleratzailea denak, diru laguntza bat emango digu, 100.000€ hain zuzen ere, gure ekimenak aurrera egin dezan ziurtatzeko.